

Martxoaren 19

SAN JOSE, MARIA BIRJINA DOHATSUAREN SENARRA

Agurra

Jesu Kristoren grazia eta bakea izan bitez zuekin.

Sarrerako oharpena

San Jose, Maria Birjinaren senarra ospatzen dugu gaur. Jesusen hezkuntzan Mariarekin batera arduradun izan zena. Elizaren zaindaria da bera: Jaunaren familiaren zaindaria. Apaltasun eredu gertatzai zaigu eta laguntzaile fin gure elizaren bizitzan: Jaunaren borondatea onartzen laguntzen diguna.

Ospa dezagun bihotzez gure herrietan hain maitea den jai hau.

Damu-otoitza

Senideok: aitor dezagun bekatarik garelara, eska dezagun uste onez Jaunaren erruki santutzailea:

—Jesus Jauna, entzuten irakasten diguzuna: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gure bihotzean zure Hitza ereiten duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, betiko biziaren fruituak eman ditzagun zure Espirituaz sendotzen gaituzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara.

Aintza zeruetan

Gorets dezagun San Jose zaindaritzat eman digun zeruko Jauna, aintza zeruetan kantatuz (esanez).

Otoitza

**Jainko ahalguztiduna,
 gizadi berriaren hasieran,
 Kristo Salbatzailearen zaintzaile leial
 egin zenuen Jose santua;
 egizu, beronen otoitzez,
 Elizak ere leial zaindu dezala
 Jesu Kristoren salbamen misterioa, eta bere betera eraman.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Daviden jatorrikoa zen Jose, eta bera da Jesus jatorri horretara lotzen duena. Horrekin batera, Jainkoaren bide-laguntza gogoratzen digute irakurgetan: eskutik garamatza; itxaropena behar dugu fededunok.

Lehenengo irakurgeta (2 Sm 7, 4-5a. 12-14a. 16)

Samuelen liburutik

Egun haietan, Jaungoikoaren hitza etorri zitzaion Natani: «Zoaz, eta esaiozu nire morroi Davidi: "Hau dio Jaunak: Zure egunak betetzen direnean eta zure gurasoekin atsedan hartzen duzunean, ondorengo bat emango dizut, zure erraietatik aterea, eta sendotu egingo dut Haren erreinua. Hark etxea eraikiko dio nire izenari, eta Nik sendotu egingo dut Haren errege aulkia betiko. Aita izango nau Hark Ni, eta Hura seme izango dut Nik.

Zure etxeak eta zure erreinuak betiko iraungo dute nire aurrean, eta zure errege aulkiak sendo iraungo du beti"».

Erantzun-salmoa (*Sal 88, 2-3. 4-5. 27 eta 29*)

Jau - na, zu - re mai - ta - su - na a - bes - tu - ko dut
 be - ti - ren be - ti.

Jauna, zure maitasuna abestuko dut betiren beti,
 zure leialtasuna adieraziko gizaldiz gizaldi.
 Esana baituzu: «Maitasuna betiko dut eraiki»,
 zure leialtasuna zeruan duzu sendo erazi. R/.

«Egin dut nire hautatuarekin ituna,
 David nire morroiari zin egin niona:
 Betiko sendotuko dut zure hazia,
 menderen mende eraikiko zure aulkia». R/.

Berak deituko nau: «Zu zaitut Aita,
 ene Jainko, nire salbamenaren Harkaitza».
 Gordeko diot beti nire maitasuna,
 zintzo edukiko, egin nion ituna. R/.

Bigarren irakurgaia (*Erm 4, 13. 16-18. 22*)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei

Senideok: Lurraren jabe izango zirelako agintzaria ez zitzaien egin Abrahani eta haren ondorengoei Legea betetzeagatik; sinesmenaren zuzentasunagatik baizik. Dena sinesmenetik dator, eta dena dohain hutsa da; horrela agintzariak ondorengo guztientzat irauten du; ez Legetik diren ondorengoentzat bakarrik, baita Abrahamen

sinesmenetik direnentzat ere; hau guztien aita baita, idatzita dagoenez: «herri askoren aita egin zaitut». Abrahamek, hilak bizten dituen Jainkoa, eta ez direnak izatera deitzen dituen, aurkitu zuenean, sinetsi egin zion.

Itxaropenean oinarriturik, sinetsi egin zuen itxaropen guztien kontra, herri askoren aita izango zela; esan zitzaion bezala: «hainbestekoa izango da zure ondorea». Hori zela eta, sinesmena aintzat hartu zitzaion zuzentasunerako.

Ebanjelio-aurreko gorapena (*Sal 83, 5*)



Bai dohatsu, zure etxean bizi direnak,
beti Zu goستن ari direnak! R/.

Ebanjelioa (*Mt 1, 16. 18-21. 24a*)

Homiliarako argibideak

Zure bila genbiltzan

Joseren eta Mariaren eskutik tenplura joan zen Jesus, hamabi urterekin mutiko gehienak joan ohi ziren bezala; eta galdu egin zen, gurasoei ordu batzuetako eromena sortuz: “Zure aita eta biok bila genbiltzan atsekabez”. Josek, emazteak bezala, hainbeste gurasok seme-alabengatik sufritzen duen moduan sufririko zuen eta ez zuen erantzuna ulertu: “ez al zenekiten nire Aitaren etxean egon behar nuela?”. Judu zintzoen bikote honengan gauza bat ageri da:

leialtasuna, ez errebelazio handietan oinarrituz, fedean oinarritua baizik, Jainkoarekiko konfiantzaz gainditzen zituztelarik eguneroko zalantzak eta ilunaldiak.

Joseren ikasbideak argiak dira. Gizon fededuna da, Jainkoaren mezuekiko bihotz-zabala eta esanekoa agertzen duena; gizon zintzoa da, Abrahamen moduan Jainkoagan sinetsi eta harekiko esperantzan bizi dena. Jainkoak bakoitzari eskatzen diona betetzen erakusten digu. Jesusen eta Mariaren zaintzaile izatea izan zen bere eginkizuna. Hala deitu zuen san Joan Paulo bigarrenak san Joseri buruz 1989an egindako idatzia: *Redemptoris Custos*, Salbatzailearen zaindari. Jose da Jainkoaren familiaren “zaintzaile leial eta prestua”.

Denok dugu bete beharreko eginkizun bat gure familian, gure lanean, gure eguneroko inguruan: besteei laguntzen eta besteak zoriontsu egiten saiatzen gizon eta emakume zuzenak izateaz gain, Jesusen Berri Ona guztiengana irits dadin lan egiteko eskatzen zaigu.

Eguneroko apaltasunean bete zuen Josek bere zaindari egitekoa. Jainkoak ez digu eskatzen beti eginkizun nabarmenik. Josek, gauza aipagarriak egin gabe leial izaten asmatu zuen. Hor dago koska. Ez zuen aldarrikapen ezagunik egin ezta mirari apartekorik ere. Baina eguneroko bizitzan eta lanean Jainkoari “baietz” esaten jakin zuen. Guri ere, aurtengo pazko berritasunak ez digu eskatuko liburuetan idazteko moduko egintzarik, bai ordea gauza txiki eta garrantzitsuetan sakon eta txukun, apal eta leial jardutea.

Gure bizitzan ere, Joseren bizitzan edo Abrahamenean bezala ez dira falta zailtasunak eta zalantzak. Pertsekuzioaren aurrean ihes egin behar izan zuenean, semea galdu eta atsekabez egon zenean nahiz Jesusen historian beti bigarren mailako presentzia bat bete

behar izan zuenean, Jose esaneko izan zen. Gizon portatu zen. Eskuzabal izan zen bere erantzunean “Jaunaren aingeruak esandakoa” betez.

Salbamenaren misteriora gerturatzeak, iluna eta beldurra sor dezake askotan; Jainkoa da misterio horren protagonista, Garizumako basamortuak gurutzera garamatza. Jainkoagan ez dugu sinesten ziurtasuna ematen digulako, berarekin fio garelako baizik. San Josek bezalaxe.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: egin diezaiogun otoitz Jaunari, eta eska diezaiogun oroi dadila gurekin, bere eskuen sorkari garenez:

Erantzuna: Kyrie, eleison!



Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei-son! Ky-ri-e, Ky - ri - e, e - lei - son!

- Gizon egindako bere Hitzza san Joseren ardurapean jarri zuen Jaunak, lagun diezaiela Elizaren artzainei berauen esku utzi baititu graziaren sakramentuak eta salbamenaren dohainak. Egigun otoitz. R/.
- Lurra gizakiaren esku utzi eta zaintzeko agindu zion Jaunak eman diezaiela langile guztiei duintasunez eta zorionez bitzeko behar dutena. Egigun otoitz. R/.
- San Josek bere lurra utzi beharraren ezina sufritzean ondoan izan zuen Jaunak, lagun diezaiela etorkinei eta zalantza artean eta estuasun larrian bizi diren guztiei. Egigun otoitz. R/.

—San Joseren heriotzan Jesus eta Maria ondoan egotea nahi izan zuen Jauna izan dadila errukitsua hiltzorian daudenekin eta lagun diezagula guri ere heriotzako orduan. Egigun otoitz. R/.

Andre Mariaren senar Jose santua gogoan dugula eskatzen dizugu, bera bitarteko dugula iritsi ditzagula geure ahultasunez eskatzera ere ausartzen ez garen guztia. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

San Josek bere prefazioa du, Meza liburuko 370. orrialdean.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Aldareko janari santuaz ase duzu, Jauna, zeure familia hau
Jose dohatsuaren jaia pozik ospatzen duen egun honetan;
zaindu gaitzazu beti zeure babespean
eta gorde gugan Zuk maitasun haundiz emandako dohainak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Bedeinkapen nagusia

Jauna zuekin. R/. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitetze, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Santuen aintza eta poza den Jainkoak
Bedeinka zaitzatela betiereko bedeinkapenez,
Jose santuaren egun honetan.** R/. Amen.

**Haren bitartez oraingo gaitzetatik atera zaitzatela
eta haren ikasbidez argitu,
Jainkoaren eta gizon-emakumeen zerbitzuan
ahalegin zaitzeten.** R/. Amen.

**Egun honetan Eliza pozik dagoen bezala
bere seme-alabak zerutarren artean ikusirik,
zuek ere haiekin batean izan dezazuela
zeruko zoriona. R/. Amen.**

**Bedeinka zaitzate! Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. R/. Amen.**